

LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEKO XENPELAR BERTSO ESKOLAK, SORTU ZENEKO X. URTEURRENA BETE ZUEN 1996. URTEAN

Urteroko Santo Tomas egunean On-Bide zineman burututako jaialdiak hiru atal izan zituen: "Zapirain Anaiak" VIII. bertso-paper lehiaketaren sari banaketa; Bertsozalearen 1go Omena; hau bide berria da, aurreko urtetan gure herriko bertsolarietara egindako omenaldiei gehitua; hirugarren atala Bapateko bertso saioa, lau bertsolari egin zutena.

– "Zapirain Anaiak" VIII. bertso-paper lehiaketan sariak ondorengo hautatutako izan ziren. Gazteen mailan Ekaitz Goikoe-txea Asurabarrena izan zen irabazlea, "Lehoi izatetik labe-zomorro izatera" izeneko bertso sortarekin. Helduen mailan Pello Esnal Ormaetxea izan zen irabazlea, bertso-paperaren izenburua "Badator urte heria".

– Bertsozalearen 1go omenean Hiru emakume izan ziren omenduak: Maddi Amiano Arregi (Iñaki Alberdi zenaren ama); Jabiera Ordoki Agirre (Mikel Arrastia zenaren ama); M. Guadalupe Lizarazu Zeberio (Ibon Zabala zenaren ama).

– Jaialdiari amaiera emateko lau bertsolari hauek egin zuten bertso saioa: Jon Sarasua, Anjel Mari Peñagarikano, Unai

Iturriaga eta Aitor Mendiluze. Gaijartzaile lanak Antton Kazabonek bete zituen.

Txistulari talde batek alaitu zuen jaialdia, maisuki bete zutelarik bere lana.

Guzti hori bertsoetan eta argazkitan emana daukazu irakurle orri hauetan.

...

Hiru kideak galtzea beti
izaten ohi da goibela
baina nolabait jarraitu behar
datorrena datorrela
gaur hiru amak ditugu horren
adierazbide bezela
hemen ulertu ez dunik bada
esan diot honela:
Bertsolariak bertsolaritzan
zati bat soilik direla.

Hiru semeak galtzea ez da
izan batere laguna
gainera erori zaien pisua
izan delako astuna
halere beti euskeraren alde
izandu dute jarduna
jaso ezazue guretzako den
hain txantxangorri kuttuna
nahiz eta gutxi den eskertzeko
hiruen zaletasuna

I. BERTSOZALEAREN OMENA



Omendutako hiru emakumeak
Escheretik: M. Guadalupe Lizarazu, Maddi Amiano, Jabiera Ordoki.
Bertsoetan Mikel Iturriaga, gaiko bi bertso hauek berak omendutakoak dira.



LEHOI IZATETIK, LABE-ZOMORRO IZATERA

Egile: Ekaitz Goikoetxea Aruabarrena

GAZTEEN MAILAKOA

Doinua: Antton eta Maria.

Ezizena: Otsoa.

- 1) Aita eta amaren babes epelean, jostailu ederrena ninduten etxean, une gezak gozatuz goiz ta arratsean, ingurukoak jarriz umore finean, ni nintzen eguzkia zu jaio artean. (bis)
- 2) Zergatik sortua da hain giro epela? Zergatik hazi zaio amari sabela? Nor dabil ostikoka Gerrero bezela? Handik egun gutxira ohartu nintzela, erantzun garratzeko galderak zirela. (bis)
- 3) Arreba jaio da ta hainbat nobedade, aiton amonak lerdre dariela daude, niretzat egoera latza da bestalde, eguzkia baitago dizdirarik gabe, paretako zomorro baztertuen pare. (bis)
- 4) Zumitzezko sehaskan kulunkan jarrita, azal larrosa eta adatsa gorritzat, burua kalabazen antzera hazita, nahiz ta jendeak esan zarela polita, txerri ederragoak badira hamaika. (bis)
- 5) Baineran plisti plasta hamaika olgeta, urpean sartu zaitut zeharo erreta, negarrez deiadarka hasi zera eta, ahots zorrotzez eta indarrez beteta, hara bihar egungo Ainhoa Arteta. (bis)
- 6) Mugitu ta artega enarak hainbeste, margoz zikinduz hainbat paretat ate, baina errua niri botatzen didate, gurasoen joera bidezkoa ote? Behar baino lehenago gizondur nahi naute. (bis)
- 7) Gauetz hartu orduko maindire magala, ametsetan murgiltzen zara berehala, dirudizu neskata lasai ta formala, egunez ez litzake suerte makala, egongo bazinake gauetan bezala. (bis)
- 8) Nahiz lehen begiradan ez duen ematen, bihurrikerirako dezu hainbat kemen, etxean sortua da hainbeste zoramen, horrela jarraitzerik ez dagonez hemen, ia amets gaizto hau azkar bukatzen den. (bis)



BADATOR URTE BERRIA

Egile: Pello Esnal Ormaetxea

HELDUEN MAILAKOA

Doinua: Leteren habanera

1. Urte zaharra joanda,
badator urte berria,
egun batean negarra
eta bestean irria.
Askatzen hasia dago
eta erortzeaz ia
egutegi horiskari
geratzen zaion orria.
Iragana omen dugu
geroaren oinarria;
geroa, berriz, ihesi
doanaren aberria.
Orainaldian duzue
bertsolari elbarria,
denboraren espaloian
bertso kantari jarria.
2. Ez dago aldaketarik
betiko martxa gaiztoan:
badator urte berria
zaharraren arrastoan.
Den-denok zahartuz goaz
habaila bizi askoan.
Mandoan ohitu garenok
ezin moldatu astoan.
Nola berez etorria
ihesian berez doan,
zer hazi ereingo dugu
orainaren arrastoan?
Ai, zenbat zimur ezkutu
nekearen bekozkoan,
ai, zer-nolako ikara
etsipenaren hostoan!
3. Ikararen konpasean
eta arazoz gainezka,
osasuntsu bizitzeko
modu egokia ez da.
Badator urte berria,
zergatik gehiegi kezka?
Jotzen hasteko prest dago
"Umore ona" orkestra.
Denon artean poliki
molda dezakegu festa,
neskak mutikoa hartuz
eta mutikoak neska.
Besterik behar duenak
hemen du aukera estra:
oraindik garaiz gaude-ta,
hiru erregeei eska.
4. Aztiak omen zarete,
hirukote erromesa:
aztiak Melxor ta Gaspar,
aztia Baltasar beltza.
Ni ere galdez nauzue,
lotsa naizenik ez pentsa:
badator urte berria,
piztu kandelaren metxa.
Zer dio izar zaharrak?,
nola dugu hodeiertza?,
noizbait beteko ote da
hondorik gabeko pertza?
Behingoz gida ezazue
herri zahar honen ametsa,
bestela laster kenduko
dizuegu erregetza.
5. Zer diozu, Olentzero,
lagun leial, zerbitzala?
Aparte egin nahi dizut
aparteko diosala.
Zenbat jaitsi zaizun bista,
zenbat zimurtu azala!
Zu ere, tripazain hori,
zaharkituz zoaz ala?
Badator urte berria,
urterik urte bezala:
aurrean irribarrea
eta atzean itzala.
Ez ote digu kenduko
geratzen zaigun moxala?
Testamentua eginda,
erne harrapa gaitzala.
6. Testamentu egin beharrak
ematen duen dardara!
Eskribaurik gabe ere
moldatuko ote gara
Zaindu ezazue ama,
arren bakarrik ez laga,
gaixoa ni baino lehen
alarguntzen baldin bada.
Utzi zorrak nire kontu,
eta tra-la-ri, tra-la-ra...
Badator urte berria,
laster joko du aldaba.
Hortik aurrera hor konpon,
semea eta alaba,
baina geroak ez beza
zuen irririk ezaba.
7. Ezkututzen hasia da
bazterretako orbela,
hazkuraz madarikatzen
behatz lodiko ospela.
Belarri bietaraino
sartu-sartuta txapela,
tirriki-tarraka doa
aitona pauso-motela.
Erregeek piztu dute
hirurek azti-kandela;
gure Olentzerok, berriz,
gainezka bete sabela.
Badator urte berria,
badator, badatorrela...
Ez diot uko egingo,
dakarrena dakarrela.
8. Tronpeta-hotsak entzuten
omen dira urrunean,
apokalipsi-dardarak
sumatzen lur barrenean.
Baina zergatik asalda,
alfer-alferrik denean,
bezperako esperantza
errez biharamunean?
Segi dezagun patxadan
betiko martxa xumean,
zalapartan ito gabe
ur gabeko Urumean.
Ostera bilduko gara
festarik ederrenean,
datorren urte berriko
San Silbestre egunean.